

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

2295/2025 Foru Agindua, azaroaren 26koa, Getaria-ko udal armarría onesteari buruzkoa.

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman zuen 2025eko azaroaren 26an:

2025eko uztailaren 30ean, udal armarría aldatzeko Getaria-ko Udalean burututako espedienteak jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, behin betiko ebazpena eman zezan, Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeako martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 37. artikuluari jarraikiz.

Hain zuzen, udal armarría eta banderak onartzeko edota jada onartutakoak aldatzeko prozedura eta betekizunak ezartzen ditu 37. artikulua. Honako hauek dira: udal Osoko Bilkuraren aldeko erabakia, espedientearen behar bezala egiaztatutako arrazoi historiko eta heraldikoetan oinarrituta hartutakoa; espedienteak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, behin betiko ebazteko; ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatzea.

Horri dagokionez, aldaketa-espedienteak udal armarría sinplifikatzea eta heraldikaren irudikapenaren «esentzia» utzea proposatzen du; baita 1988an armarríari gehitu zitzaizkion kanpoko apaingarriak kentzea ere, hau da: lurraren irudikapena gainean daraman errege-koroa, bi landare-irudiak, bi gizon edo tenanteak eta «Noble, leal e invicta villa de Guetaria» leloa duen banda flotatzailea. Era berean, armarríaren forma (biribildua izan behar duena) eta esmalte edo koloreak aldatzen dira, ohiko arau heraldikoei egokitzeko.

Aldundiari aurkeztutako espedientearen jasotzen denez, izapide hauek egin dira, besteak beste: Osoko Bilkuraren hasierako onspena 2025eko martxoaren 25eko bileran; jendaurrean jaretzea, dagokion iragarkia argitaratuta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2025eko apirilaren 11n: 70. zk.), eta data berean udal-erregistroko iragarkien taulan (ED25/0008) nahiz udal webgunean; eta Osoko Bilkuraren behin betiko onspena 2025eko uztailaren 29ko bileran, aurkeztutako alegazioak ezetsi ondoren hasierako erabakia berretsiz.

Horrekin batera, espedientearen Eusko Ikaskuntzaren bi txosten (2024ko apirilaren 15 eta 2025eko uztailaren 1ekoak) eta ziurtagiri bat (2025eko martxoaren 21ekoak) jaso dira: armarría aldatzeko arrazoi historiko eta heraldikoak daudela baieztatzen dutenak; eta bermatzen dutenak armarrí berriaren proposamenak printzipio eta arau heraldikoei erantzuten diela.

Horiek horrela, Gobernantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urriaren 1eko 33/2024 Foru Dekretuak 1.1.g) artikuluan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

Orden Foral 2295/2025, de 26 de noviembre, sobre aprobación del escudo municipal de Getaria.

La diputada foral del Departamento dictó, con fecha 26 de noviembre de 2025, la siguiente orden:

Con fecha 30 de julio de 2025, tuvo entrada en la Diputación Foral de Gipuzkoa el expediente remitido por el Ayuntamiento de Getaria relativo a la modificación del escudo municipal, a fin de que adoptara la resolución definitiva, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 37 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa.

El artículo 37 establece el procedimiento y los requisitos para la adopción de los escudos heráldicos y banderas municipales y la sustitución de los ya adoptados: acuerdo plenario favorable fundado en razones históricas y heráldicas debidamente acreditadas en el expediente; remisión del expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su resolución definitiva; publicación de la resolución definitiva en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa e inscripción en el Registro Foral de Entidades Locales.

A este respecto, el expediente de modificación propone simplificar el escudo municipal y dejar la «esencia» de la representación heráldica, así como eliminar los adornos exteriores que se sumaron al mismo en 1988, esto es, la corona real sobre la que monta la representación de la tierra, las 2 figuras vegetales, los dos hombres o tenantes y la banda flotante con el lema «Noble, leal e invicta villa de Guetaria». Asimismo, se modifican la forma (que debe ser redondeada) y el esmaltado o pintado, para adaptarlos a las normas heráldicas al uso.

Según consta en el expediente presentado, se han realizado, entre otros, los siguientes trámites: aprobación inicial del Pleno en sesión de 25 de marzo de 2025; sometimiento del expediente a información pública mediante anuncio publicado en fecha 11 de abril de 2025 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 70) y en esa misma fecha, en el tablón de anuncios del ayuntamiento (ED25/0008) y en su página web; y aprobación definitiva del Pleno en sesión de 29 de julio de 2025, ratificando el acuerdo inicial tras desestimar las alegaciones presentadas.

Además, el ayuntamiento ha recabado dos informes (de 15 de abril de 2024 y de 1 de julio de 2025) y un certificado (de 21 de marzo de 2025) de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, que confirman la existencia de razones históricas y heráldicas para la modificación del escudo; y avalan que la propuesta de nuevo escudo responde a los principios y a las normas heráldicas.

Por cuanto antecede, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 1.1.g) del Decreto Foral 33/2024, de 1 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, y el artículo 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esta diputada foral

EBAZTEN DU

Lehenengo. Getariako udal armarri berria onestea, foru agindu honen eranskinean jasotzen den irudikapen grafikoa duena eta ondorengo deskribapena:

«Armarri biribildua. Eremu zilarkaran, arpoiaz jotako balea beltz bat, olatu urdin eta zilarkaren gainean».

Bigarren. Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko mar txoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak 37. artikuluan ezartzen duenari jarraikiz, ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, eta Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu berraztertze berariaz ebatzi edo ezesten den arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2025eko azaroaren 27a.—Alicia Echeverría Urra,
Departamentuko idazkari teknikoa. (8157)

RESUELVE

Primero. Aprobar el nuevo escudo municipal de Getaria, cuya representación gráfica se incorpora como anexo a la presente orden foral, y que responde a la siguiente descripción:

«Escudo redondeado. En campo de plata, una ballena arponada de sable sobre ondas de agua de azul y plata».

Segundo. De conformidad con lo dispuesto por el artículo 37 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa, publicar esta resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa e inscribirla en el Registro Foral de Entidades Locales.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 27 de noviembre de 2025.—La secretaria técnica del Departamento, Alicia Echeverría Urra. (8157)



ERANSKINA / ANEXO

